

Adiorik gabe!

IÑAKI URIA



MONOZIKLO baten gainean. Eta zirkorik gabe. Halaxe ezagutu genuen. Pailazo, tigre, domadore eta aurkezle. Denak batean biltzen zituen.

Kaiolarik gabe. Inguruko guztiak ikusle, mirese eta lagun bihurtu gintuen. Ordainik gabe.

Londondik ekarritako monozikloaren gainean etorri zitzaigun Zarauzti Argiara. Eta irrifarez eutsi zion euskaldunen arteko zauri larria josteko lanari. Gure herria osatzeko lanari.

Azkarra, argia, bizia. Ez zetorren bakarrik. Indarra ekarri zigun. Bizia. Belaualdi berria.

Kazetaritaz farre eginaz egin zen kazetari. Pre-soak, gazteak eta euskara gogoan sartu zen gure artean. Eskatu gabe.

Egunero harritzen gintuen. Hitzez eta ekintzez. Adarjotzailere paregabea. kirolari trebea, parrandero amorratua eta langile ezin hobea. Askatasuna helburu dugunon askatasunez bizi zen. Mugarik gabe.

Denbora irabazi alde, denboraren kontra egin du istripu. Murgildua da Bertrako itसान. Olaturik gabe.

Gorbea, Txindoki eta Oriko elurrak malxo otru zaizkigu udaberri lehortu-berri honetan.

Eta guk, Bartolo, aurrera jarraituko diagu. Adiorik gabe!

«Harki!»

TXILLARDEGI



ORAINDIK ere Franco bizi zelarik (nahiz bere amai-hurrunean izan), Baionako katedralean ari ginen góse-greban hirurogei bat errefúxiatu, Iparraldeko zenbait abertzalek lagundurik. Eskuin aldeko kaperan geunden etzanda.

Horretan abisua iritsi zaigu: «Heldu tuk!». Kaperako atea hetsi, atzetik aulkari pare bat erantsi, eta «eutsi»...Iretetako asmo izpirik ez.

Ate joka hasi da poliza: —Sortez! Au nom de la loi je vous ordonne de quitter les lieux!

Kapera barnetik guk: —Ez dugu frantsesa ulertzen!

Isilune luzea, oso luzea. Eta gu, kaperan, zer gertatuko ote zen zai.

Horretan geundelarik, poliza-hotsak kanpo aldetik; eta beste ahots batek, euskaraz oraingoan:

—Legearen izenean mintzo natzazue. Jalgi zaitzete kaperatik!

Eta barnetik erantzun hau: —Harki!...Harki!...

Gero etorri dira negar-bonbakin, atea kolpeka erauzi dute, eta gu guztiok, itoka, komisariara eramana... Eta garrantzi hura ez zait behin ere ahaztuko. Euskaldun polizija hura «harkia» zen: Parisko aginduak itzultzen zituen guretzat.

Hemen ere, Hegoaldean, «harki» asko ezagutu dugu. Orain ere ez dira eskas. Baina ezagunena, agian, Elortza da, PSOEren itzultzailea izandakoa; Recalde bozeramaila egon zen garai tamalgarrin, bere «jefearen» aginduak eta arabakiak guretzat itzultzen zituena. Gehienok horrela ezagutu dugu Elortza hori. Banaka batzuk, diotenez, «gropúsculo izquierdoso» haietako batean topatu omen zuten aspaldian, ezker abertzalearen kontra ari. Hots, Barberá jaunak, hamaika aldiz gutaz trufatu ondoren, beste ostio berri bat asmatu du: «harki» horixe izendatu nahi du U.P.V.ko zuzendari... Horixe bai adar jotze amaiezina! Denaz gain orain, U.P.V.aren zuzenketa, P.S.O.E.ko «harki-buru» baten eskuetan uztea... Elortza-renean. Noiz arte jasan beharko ote dugu oraindik errektore okaztagarri hori?

EL MUNDO

Bakea berregitearen zailtasuna

Borroken amaiera ezin da izan kurtso bukaerako dantzaldi alaia, dantzalekua, hildakoz jositako dagoelako. Ebiatu behar zen gerra baten ordaina dira. Piztiak, piztia bait da, ez zituen hartarainoko hatzapar zorrotzak, nahiz eta orro beldurgarriak egiten zituen. Itxitura politiko, diplomatiko eta ekonomikoak, etengabe eta zorrotz egindakoak, lantzakada ziur eta gogor hau jaso aurretik makurtu behar zuen; ez bait zaio sartu saihestean berari bakarrik, baizik eta milaka errugaberi, eta hauen hilketa-sarraskiak guztiok lotatu behar gaitu.

EDITORIALA / 1991-III-1

egin

Bartolo

Oraindik hogeitalau urterik ez, eta terreno zailenetarako eta herri honetako borroka konprometituenetarako *denerako -balio -duen -mutilaren* kondi-



GALLEGO & REY / DIARIO 16 / 91-III-1

EL CORREO ESPAÑOL

Itxaron hiru hilabete

Nazionalistek ez die onik ekarriko Arabako UAren igoera hipotetikoak, edo oraindik baieztatutako gabe, Bilboko alkatetzarako Gorordoren kandidatura atomikoak. Sozialistak, 1990eko urriaren 28an galdutako posizioak berreskuratzen ahaleginduko dira. Guzti honegatik eta askoz gehiago, ez batari eta ez bestari, ez EAJ eta ez PSE-PSOeri, ez zaie komeni, azken ehun egunotan euren artean sortu duten urrutzeak gehiagora egitarik. Eta beren harremanak berregiten hasi dira poliki-poliki.

RAMON MUR / 1991-III-1

zio latza lortua zenuen jada. Joan egin zaigu *Bartolo*, zita guztiarentzat zaltzen zen *todoterrenoa*, konpromezu guztiak ongi betetzen zituena. Gazte bat joan zaigu, nahi gabe izan bazen ere, besteok azkarregi bizitzera behartu genuena, bizitza, hogeitalau urte sakon eta emankorretan agortarazi geniona.

Gazterik, oso gazterik, *Bartolo*, herri txiki honen bizia duintzen duten gizon handien zerrenda osatzera pasa zaigu.

MARTIN GARITANO / 1991-III-1

DEIA

Munduko antolamendua eta ordena

Behin baino gehiagotan,

neure burua bakezaletzat edukita, beste bakezaletasun batzuk kritikatu ditut, mundu erreale eta krudel gatazkatsu honetan ingenuo, alferreko edo baretsuak iruditzen zaizkidanean. Uste dut ordua dela *erakunde unibertsal* batean pentsatzen hasteko, munduko ordena eta bakearen benetako erantzule izango den batean. Horretarako, erakunde honek beharko luke *eraginkor bihurtuko duen aginte moral eta benetako* izan, nazioarteko arazoetan eskuhartu ahal izateko eta baita beste askotan ere, orain arte «barnekoak» kontsideratuak, baina nazioartekotzat hartu behar direntan, beren interes humanitarioa ikusita.

J.R. SCHEFLER / 1991-III-1

ZUZENDARIARI

Uharte Arakil

Nere jaioterrria. Aralar eta Andia mendien tarterko *Sakana* ederrean dagoen herri polita.

Nere haurtzaroen gure jaioterrria oso-osorik euskalduna zen. Egia esan, ba ziren erdaldun zenbait ere, hala nola goardia zibilak, burnibideko ferrobioariok eta beste. Egia ere eskolako naxtakoak (mutikoak ez oraino) elkarrekin erderaz barra-barra aritzen zirela beren jostaketetan, euskaldunak izanik ere. Eta aitortu beharrean nago ni ere garai haietan erdaldunen artean egoten nintzela. Nere gururasoko (gaixoak!) ez diet errurik egotzen! ez zidaten euskara irakatsi. Nere aita zenak, soldadutzara joan zelarik, ez omen zekien erderaz tutik ere. Kubeko gerrakoan zen eta hiru urte luze egin zituen han. Erderaz ez zekiela batez ere, gorriak eta beltzak ikusi omen zituen. Eta esan ohi zuen askotan: «Nik ez dut nahi nere umeak nik jasan-

dakoak jasan ditzaten». Eta beti erderaz egiten zigen. Ama zenak berriz, naiz eta Uarten bertan euskaldun jaioa, hiru urteko umea zela, Kastillara joan behar izan zuen bizitzera. Hamazazpi urteko neskatxa eginkor itzuli zen herrira baino, jakina, euskara erabat ahazturik, eta gero berriz bere hizkuntza ikasi ba zuen ere, errazalde jokatzegatik edo, erderaz egiten zigen.

Garai haietako apezak, karlista amorratua izanik ere, oso euskaltzaleak ziren, eta latinez landara, elizkizun gehienak euskaraz egiten zituzten, eta jokatze horrek herriko hizkuntzari eusten zion eta indarra ematen. Gero Francoen gerra zitala etorri zitzaigun eta horrek hondatu zituen denak. Akaboa gure hizkuntza! Eta euskeraren batean euskal sena eta konzientzia ere galduta eginen bait dire, sen hortan daude gure herrikide asko: beren buruak nafatar bai, baino eukaldun ez, jotzen dituzte. Eta hori ez da hola inolaz ere: Jainkoak eus-

kaldun egin gaitu, Kastillako kolonizatzaileak erdaldun. Noren alde zaude zu? Industria berriak direla ta, kanpoko jendea etorri zaigu eta erdera gehiago ekarri digute, baino ez dire denak kolonizatzaileak: ba dire Soria aldetik etorritakoak hemengo koropiloak eta problemak ongi ulertu dituztenak eta euskera ikasteari su ta gar lotu direnak. Baita ikasi ere! Nolako poza ematen duen hauetako batekin hizketan hasi eta guk bezain ongi, hobeki ez bada, euskaraz egiten duela ikusteak. A ze ikasbidea guretako! Aldiz, oso negargarria herriko seme edo alaba bati euskaraz galdemoduren bat egin eta «no entiendo» erantzun latza entzutea. Ez ba zaitu erdeinuz zakuraren ipurdia bidaltzen...!

Bai! Kolonizatzaileak gure artean ere ba ditugu zoritxarrez.

Gure aurrekoek burua jasoko ba lukete...!

INOZENZIO AYERBE UHARTE-ARAKIL

PERTSONAIA



Iñigo Makazaga 'Bartolo'

Joan zara, Bartolo Argia da ilun alde egin diguzun lankide ta lagun gehienok ixilean maitatu zintugun guztiok gaude orain apur bat alargun errepede txar batek zenbat kendu digun!

JON SARASUA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JUAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:

JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:

INMA GOMILA

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIAN ETXEZARRERETA

IÑAKI URIA

Publikitateak:

KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidetza: 72564 E
Leger Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxes: 45 59 57 Erredakzio eta Talerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxes: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxes: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78 / 79 / Faxes: 17 80 77

Gipuzkoa: Loidola, 14-1.3 / 20005 Donostia / ☎: 42 69 96 / Faxes: 42 93 18

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxes: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxes: 59 25 75 11